

## Tolosako Musika Bandaren doinuak

Tolosako Musika Bandak diana joko du astelehen goizean, San Joan egunean, 08.30ean. Ondoren, bazkal aurretik, kontzertua emango du Plaza Berrian, Tolosako eta Iruñeko ual txistulariekin; eta arratsaldean, Santa Maria Eliza nagusiko bezperetara joango da, udalbatzarekin, bordondantzariekin eta eskopetariekin. Elizkizuna amaitu, eta Trianguloan bilduko dira denak.

# egitaraua

## EKAINAK 22 • larunbata

**08:00** Goiz guztian, sanjoanetako aparteko azoka.
**09:30** Tolosako Dultzaineroak kalez kale ibiliko dira, herria doinuz alaitzen.
**10:00** Igarondo udal igerilekuan, igeriketa probak izango dira, XXXIV. San Joan Saria.
**10:00** Berazubin tenisa. San Joan Sariaren finalak.
**10:30** Beotibar pilotalekuan, Tolosako Zesta Punta Eskolak antolatuta, X. San Joan Zesta Punta Txapelketa.
**10:30** Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako Dultzainercekin. Irteera, Euskal Herria plazatik.
**11:30** Txaranga del Oria kalez kale ibiliko da, herria doinuz alaitzen.
**12:00** Tolosako Koadrilen Eguna hasiko da Berazubiko plazan. Egun osoan: jokoak, txiste, irrintzi eta bertso lehiaketak, kalejira, dantzaldia... Eguna alaitzen, txarangak, dultzaineroak eta trikitilariak arituko dira.
**12:00** Kultur Etxeko areto nagusian *Tolosako estropadak* liburuaren aurkezpen ekitaldia.
**14:30** Plaza Berrian, koadrilen herri bazkaria. Ondoren, erromeria, Xanpetiki-dance eta Larrain-dantza.
**16:00** Beotibar pilotalekuan Pilota Elkarteen arteko San Juan txapelketako finalak (alebinak, infantilak, kadeteak eta jubenilak).
**16:00** Berazubiko zelaian, sanjoanetako kimu futbolaren finalaurrekoak jokatuko dira.
**18:00** Sortzez Garbiaren plazan haur ikuskizuna, Detraka taldearen eskutik: *Trikimailu berria.*
**19:00** Igarondon, *squash* txapelketaren finala, XII. San Joan Saria.
**19:30** Gure Kaiola Elkartean *Gure Kaiola Elkartearen 75. urtemuga* liburuaren aurkezpena.
**19:30** Xiberoa Garatzen egitasmoak antolatuta, bertso jaialdia Leidor Zineman: Anjel Mari Peñagarikano, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Sustrai Colina, Amets Arzallus, Aitor Sarriegi. Gai jartzailea: Saroi Jauregi.
**20:00** Euskalerria Plazan, Nueva Alaska orkestraren emanaldia.
**23:00** Su artifizialak, 1. bilduma: Astondoa Piroteknia etxea, Igarondo Zumardi Txikian.
**23.30** Euskalerria Plazan, Nueva Alaska orkestraren emanaldia.
**24:00** Plaza Berrian, Heredeiros da Crus musika taldearen emanaldia; ondoren, disko festa.

## EKAINAK 23 • igandea

**San Joan bezpera**

**09:00** Diana Udal Musika Eskolako gaitariekin.
**10:00** Txirrindulariak, Agustin Urkola proba, Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta.
**10:00** Berazubin, sanjoanetako kimu futbolaren finalak.
**11:00** Goizez eta arratsaldez, haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan: gaztelu, ohe elastiko, tren txiki, bufalo amerikarra...
**11:30** Foruen plazan (Trianguloa), Gipuzkoako Toka Txapelketa, IV. San Joan Saria.
**13:00** Kontzertua Plaza Berrian, Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrarekin.
**17:00** Txistularien kalejira, antzinako erronda bidetik barrena.
**17:00** Plaza Zarretik zezen plazara, aurkezpen paseoa, Tolosako Musika Banda, aguaziltxo eta zaldi mutilekin.
**18:00** Zezenketa, zezen plazan. Carlos Núñez (Cádiz) ganadu etxeko 6 zezen bikain toreatuko dituzte Manuel Caballero, Eugenio de Mora eta Juan Bautista Jalabert toreatzaileek.
**18:00** Foruen plazan (Trianguloa), Azkona taldearen eskutik, haur ikuskizuna: Kiki, Koko eta Flax.
**19:00** Euskalerria plazan, Xukan taldearen eskutik *Iturrian zer dago?* ikuskizunaren emankizuna, dantza, bertsoa eta trikitixa uztartuta.
**19:30** Udalbatza Plaza Zarretik abiatuko da Arrameleko San Joan kaperako bezperetan eta arrats otoitzetan parte hartzeko.
**22:00** San Joan sua, Santa Maria plazan, udalbatza bertan dela. Ondoren, Udaberri Dantzari Taldeak eta Tolosako Musika Bandak jardungo dute. *San Joan* zortzikoa jo ondoren, Musika Banda kalez kale ibiliko da. Jarraian, Tolosako Orfeoiak kantatuko du.
**24:00** Kontzertua, Plaza Berrian, Sen taldearekin; ondoren disko festa.

## EKAINAK 24 • astelehena

**San Joan eguna**

**08:30** Diana, Tolosako Musika Bandarekin.
**08:45** Diana, Tolosako eta Iruñeko txistulari bandekin.
**09:00** Diana, Udal Musika Eskolako gaitariekin.
**09:00** Txirrindulariak (irteera): 1. eta 2. mailako amateurren proba, XXX. Jose Mª Anza Memoriala, Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta.
**09:30** Eskopetariak eta Tolosako Musika Banda bilduko dira Plaza Zarrean. Diana, desfilea eta, ondoren, San Joan alardea, Gipuzkoako antzinako foru milizien oroimenez. Udalbatza bertan izango da.
**10:00** Meza Nagusia, Santa Maria parrokian. Ondoren, prozesioa; bertan parte hartuko dute udalbatzak, kofradiek eta Tolosako bordondantzariek; aldi berean, elkarteetako eskopetariek ordenantzetako salbak botako dituzte betiko tokietan.

Elizkizunak amaitu ondoren, eskopetari konpainiak Foruen plazan (Trianguloan) bilduko dira berriro, bertan azken deskargak egiteko, alardeko kapitainaren gidaritzapean.
**10:30** Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroekin. Irteera, Euskal Herria plazatik.
**11:00** Goizez eta arratsaldez, haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan: gaztelu, ohe elastiko, tren txiki, bufalo amerikar...
**11:45** Txirrindulariak (amaiera): XXX. Jose Mª Anza Memoriala.
**13:00** Kontzertua, Plaza Berrian, Tolosako Musika Banda eta Tolosa eta Iruñeko udal txistulariekin.
**17:00** Udalbatza, Tolosako Musika Banda, txistulari, bordondantzari eta eskopetariak Plaza Zarretik abiatuko dira, Santa Maria eliza nagusiko bezperetara joateko. Ondoren, Arrameleko San Joan kaperan izango diren arrats otoitzetan parte hartuko dute.

Elizkizuna amaitzean, udalbatza, bordondatzariak, txistulariak, Musika Banda eta eskopetarien konpainiak Foruen plazan (Trianguloan) bilduko dira, bertan azken deskargak egiteko. Ondoren, udalbatza Zumardi Handira joango da. Han, dantzariek ohiko aurreskua dantzatuko dute.
**18:00** Zezen plazan, zezen errekortarien VI. San Joan Sari Nagusia; Iruñea, Bergara, Baiona eta Tolosako langun taldeek esku hartuko dute.
**18:00** Sortzez Garbiaren plazan, Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazoen emanaldia.
**19.30** Iraunkorrak txarangakoak kalez kale ibiliko dira.
**23:00** Su artifizialak, 2. bilduma: Pirotecnia Zaragozana.
**23:30** Mc. Jeara's Band bandaren kalejira, eta ondoren, emanaldia Trianguloan..

## EKAINAK 26 • asteazkena

**20:00** Udal auditorioan Artizar ganbera orkestraren kontzertua. Zuzendaria: Julio Bravo.

Kultur Etxean, Xabier Peñalverrek idatzi duen *Intxur. Duela bi mila urteko herrixka* liburuaren aurkezpen ekitaldia izango da.

Iriarte
GERRUNTZE
LENTZERIE
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!!
Korreo, 7
✆ 943 67 03 27
TOLOSA

Xirimiri
TXOKOLATEGIA
Gosariak eta Meriendak
Errementari, 40 TOLOSA 943 675223 tel.

LAB
Langile Abertzaleen Batzordeak
Gorosabel 29, 1. - 20.400 TOLOSA - Tel.: 943 67 00 26